

**GOBERNU JUNTAK 2017.05.16an EGINDAKO  
BILKURAKO AKTA**

**LEHENDAKARIA**

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

**BOKALAK**

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA  
MARIA UBARRETXENA CID  
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA  
ELENA LETE GARCIA  
LANDER ARREGI INCHAUSTI  
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA  
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA

ANTZUOLA  
ARRASATE  
ARRASATE  
BERGARA  
BERGARA  
ELGETA  
ESKORIATZA

**ETORRI GABEAK**

JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU  
IBON ARRUPE ALDECOCEA  
OSCAR GARCÍA HORRILLO  
SABINO AZCARATE LETURIA  
ENEKA ZANKADA REMENTERIA  
MIKEL BIAIN BERRAONDO  
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA  
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ARETXABALETA  
ARRASATE  
ARRASATE  
BERGARA  
LEINTZ-GATZAGA  
OÑATI  
OÑATI  
OÑATI

**BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA**

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

**JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK**

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2017ko maiatzaren 16an, 12:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren bilkura berezia hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

## 1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2017ko apirilaren 11n egindako bilkura bereziko aktaren zirriborroa.

## 2.- ZERBITZU OROKORRAK

### 2.1.- 2016ko Aurrekontuaren likidazioaren berri ematea

Kontu-hartzaileak 2016ko aurrekontuaren likidazioari buruzko bere txostenaren eta lehendakariaren onespenez ebazpenaren berri eman du. Hona hemen likidazioaren laburpena:

#### DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2016-12-31n:		1.428.348,23
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2016-12-31n:		1.607.850,12
Aurrekontuko zordunak :	1.201.705,34	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	406.144,78	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2016-12-31n:		901.700,18
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	601.955,89	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	299.744,29	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Obra handietarako hornidura		131.670,48
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		2.002.827,69
5.- Saldo kobragaitzak:		37.075,18
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		158.529,68
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		1.807.222,83

## AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-489.710,70
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-40.723,31
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	1.766.420,16
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	-158.529,68
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	1.077.456,47

## KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	912.075,46
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	895.147,37
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	1.807.222,83

Gobernu Junta jakinaren gainean gelditu da.

### **2.2. Hainbat berme bueltatzea**

Ondoren zehazten diren behin betiko bermeak itzultzeko espedienteak ikusita, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengoa ERABAKI DU:

- Aipatu bermeak itzultzea:

1.- Enpresa: HEMEN GARBIKETAK, S.L.

Kontratua: Lokalen garbiketa (2013)

Zenbatekoa: **4.889 €.**

2.- Enpresa: AREA 7, S.L.

Kontratua: Suteen eta intrusioaren aurkako sistemen mantentzea (2013)

Zenbatekoa: **139,17 €.**

## **2.2. 2017ko Lanpostuen Zerrenda onartzea**

Pertsonal Batzordearen bilera atzeratu denez, gai hau mahai gainean uztea erabaki da.

## **3.- HONDAKINEN KUDEAKETA**

### **3.1.- Papera eta kartoia saltzeko kontratazio espediente berria**

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2017ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Mankomunitateak jasotako paper eta kartoia saltzeko kontratazio espedientea eta Administrazio Klausula Partikularren Agiria onartu zituen eta esleitze-prozedura irekitzea erabaki zuen.

Horretarako emandako epean hiru proposamen aurkeztu ziren:

- SAICA NATUR NORTE, S.L.
- ARREGI ETXABE JUAN JOSE, S.A.
- BIDASOA ECO GESTIÓN, S.L.

Hiru haueetatik bi baztertu egin ziren, ARREGI ETXABE JUAN JOSE, S.A. enpresak aurkeztutakoa, kaudimen tekniko eta profesionala ez egiaztatzeagatik, eta SAICA NATUR NORTE, S.L. enpresarena aurkeztutako proposamenak baldintza agirian jasotako eredu funtsean aldatzeagatik, eskainitako zenbatekoan ageriko errorea eraginez.

Beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu ondoren, 2017ko martxoaren 29ko lehendakariaren ebazpen bitartez, BIDASOA ECO GESTIÓN, S.L. enpresari esleitu zitzaion aipatu kontratua.

Enpresa honek ez zuen kontraturik sinatu horretarako emandako epean, Mankomunitateari jakinaraziz ezin zuela kontraturik sinatu bere eskaintza aurkeztu zuenetik kontratua sinatzeko datara arte merkatuaren baldintzak izandako bat-bateko jaitziera zakarragatik.

Hau kontuan izanda, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Aipatu salmenta kontratatzeko lizitazio prozedura berri bat irekitzea, horretarako kontratazio espedientea eta Administrazio Klausula Partikularren Agiri berria onartuz, besteak beste, prezioa ezartzeko irizpideak aldatuz, eskaintza aurkeztu eta kontratua sinatu arte igarotako hilabeteen prezioaren aldakuntza guztiak jasoz.
2. BIDASOA ECO GESTIÓN, S.L. enpresari 13.000 €-ko behin betiko bermea bueltatzea.

### **3.2.- Kilometroak 2017 Oñatiko koordinatzaileen eskaera**

Kilometroak 2017 Oñatiko koordinatzaileek aurkeztutako eskaeraren berri eman da. Eskaera honako hau da: iaz Bergarako Aranzadi ikastolarekin sinatutako hitzarmenarekin jarraituz, aurten ere irailaren 24an Oñatin ospatuko den Kilometroen jaia dela eta, elkarlanean ondorengo konpromisoak hartzea:

- Mankomunitatearen konpromisoa: hondakin bilketako zerbitzu bereziengatik eta materiala lagatzeagatik dirurik ez kobratzea.
- Kilometroak 2017 antolatzaileen konpromisoa: egun horretarako aterako diren karteak orokor eta esku-orrietan Mankomunitateari laguntzaile trataera ematea.

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU eskaera.

### **4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA**

#### **Enplegua eta Prestakuntza**

##### **4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa**

- **Fidantza bat bueltatzea; O. A. B. (MENDITXIK)**

Enpresa Ekintzetarako Zentroaren modulu bat erabiltzeko emandako baimena dela eta aurkezturiko fidantza bueltatzeko espedientea ikusita.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak aho batez ondorengoa ERABAKI DU:

- O. A. B. ekintzaileari bere egunean jarritako 656,61 €ko fidantza bueltatzea.

##### **4.2.- 2014-2020 HAZILAN proiektua garatzeko GARAPEN Elkartearekin 2016ko otsailean sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren aldaketa**

2016ko otsailaren 1ean GARAPEN Elkarteak eta Mankomunitate honek lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuten PO FSE 2014-2020 HAZILAN proiektua garatzeko.

Hitzarmen honek, seigarren klausulan, 294.464,13 €-tako aurrekontu bat jasotzen du AGENTZIA-rentzat eta hauetatik 147.232,07 € EGF-ak finantzatzen ditu. Halaber, zazpigarren baldintzan, agentziek GARAPENen kudeaketa-kostuaren % 50 batera finantzatu beharko dutela jasotzen da, proiektu orokorrean honek kudeaketa ekonomiko-administratiboan emandako laguntzagatik.

Hainbat egoera sortu direla eta proiektu honetan parte hartzen duten Agentzien aurrekontuaren aldaketa eragin dutenak, Agentziek GARAPENeri hitzarmen honetan jasotzen dena baino zenbateko handiago bat ordaintzera behartuz, GARAPENek seigarren eta zazpigarren klausulak aldatzea proposatzen du.

Hau honela izanik, GARAPENen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- 2016ko otsailaren 1ean sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren seigarren eta zazpigarren klausulak aldatzea, honela geldituz:

**Seigarrena.- Proiektuaren finantzaketa**

*Proiektuaren aurrekontu osoa 6.000.000€-koa da, eta horietatik %50 batera finantzatuko du EGFK, hau da, 3.000.000€.*

*DEBAGOIENAKO MANKOMUNITATEAri dagokion aurrekontua 352.255,59€-koa da, eta horietatik 176.127,79€ batera finantzatuko du EGFK.*

**Zazpigarrena.- GARAPENen kudeaketaren finantzaketa**

*Seigarren baldintza alde batera utzita, agentziek GARAPENek proiektu orokorrean kudeaketa ekonomiko administratiboan emandako laguntzagarriak zenbatekoa ordaindu beharko dute.*

*Agentzia bakoitzari dagokion zenbatekoa kalkulatu da bakoitzaren aurrekontu osoarekiko den ehunekoaren arabera.*

*DEBAGOIENAKO MANKOMUNITATEAren kasuan, finantzatu beharreko zenbatekoa 27.082,00€-koa da.*

*Zenbateko hori proiektuaren betearazpen-urteen artean banatuko da.*

## **5.- LEHENDAKARITZA**

### **5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak**

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

**17/26.-** 1.- J. R. A. kontratatzea apirilaren 3tik 7ra, Arrasateko ibilbide industrial egiteko zamaketari bezala, apirilaren 10etik 12ra S. C. zamaketariaren ordezkapena egiteko, 24tik 26ra Debagoiengan dauden edukiontzietan pegatinak jartzeko, eta apirilaren 27tik maiatzaren 12ra arte Aretxabaletan edukiontzien euskarriak eta piboteak jartzeko. Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- J. E. I. kontratatzea apirilaren 4an, Bergarako ibilbide industrial egiteko zamaketari bezala, apirilaren 10etik 12ra J. J. zamaketariaren ordezkapena egiteko, apirilaren 18tik 21era S. C. zamaketariarena, eta maiatzaren 8an G. I. zamaketariarena. Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

3.- J. T. L. kontratatzea apirilaren 5ean eta 6an J.E. txoferraren ordezkapena egiteko, apirilaren 10etik 12ra J.D.L.T. txofer-zamaketariarena, eta maiatzaren 3tik 26ra M. L. rena. Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

4.- M.A.E. kontratatzea apirilaren 10ean, arratsaldean, apirilaren 18tik 22ra, maiatzaren 10ean, eta maiatzaren 15ean goizez, J.L.M. Garbiguneko zaintzailearen ordezkapena egiteko, apirilaren 12an A. L. rena, apirilaren 28an D. G.rena, eta maiatzaren 11n eta 12an, M. S.ena. Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

4.- A.A.G. kontratatzea apirilaren 12an Arrasateko ibilbide industriala egiteko zamaketari bezala, eta apirilaren 18tik 20ra J.J. zamaketariaren ordezkapena egiteko. Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

5.- E.A.I kontratatzea apirilaren 20tik 22ra D.G. eta A.L. Garbiguneko zaintzaileen ordezkapena egiteko, eta maiatzaren 11n eta 12an M. E.rena. Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

**17/27.-** 17/07 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BOSTEHUN ETA HOGEITA HIRU MILA ETA LAUREHUN ETA LAU EURO ETA HOGEITA BEDERATZI ZENTIMO (523.404,29 €).

**17/28.-** 17/08 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira SEIEHUN ETA LAUROGEITHA HAMALAU EURO ETA HOGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (694,33 €).

**17/29.-** 17/09 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HOGEITA HIRU MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA BEDERATZI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAZORTZI ZENTIMO (23.829,78 €).

**17/30.-** - G.G.O. bitarteko funtzionario izendatzea, 2017ko maiatzaren 2tik irailaren 1era arte, lau hilabetez, uda garaiko lan pilaketari aurre egiteko. Hileko 2.250,85 €ko ordainsari gordina emango zaie, honela banatuta:

- Soldata: 931,11 €. (A2)
- Lanpostu-mailako osagarria: 398,29 €. (18)
- Berariazko osagarria: 921,45 €.

## **6.- GALDE-ERREGUAK**

- “Epeleko zabortegean zigilatu, gela berria ireki eta garbigunea egiteko proiektuko” lanen kontratua dela eta, CONSTRUCCIONES MURIAS, S.A.U. enpresak jarritako ondorengo apelazio-errekurtsoari buruzko Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiaren berri eman du idazkariak:
  - 131 egunez atzeratu edo berandutuz sartu zelako zigilatze-gunean geosintetikoaren zabaltearen zabalteko epe partzialean, CONSTRUCCIONES MURIAS, S.A. enpresari 56.920,81 €-ko zigor bat ezartzeko Gobernu Juntaren erabakiaren aurka aipatu enpresak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren Administrazioarekiko Auzien Donostiako 1. Epategiaren epaiaren aurkako apelazio-errekurtsoa.

Errekurtsua bere osotasunean ezetsi da, kostak ordaintzearen zigorra izan ezik.

- IDAEk (Instituto para la Diversificación y el Ahorro de la Energía) ateratako deialdiaren berriaren berri eman da.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 14:00etan, bukatutzat eman da bilkura.